

LITERATURA · *Historia del mundo* · DISEÑU · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERRIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEÑU · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · **saski-naski** · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERRIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEÑU · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERRIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEÑU · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK

KRITIKA

Bizitza ikergai

TITULUA: 'INTEMPERIES (BABES BILA)'

EGILEA: LOURDES OÑEDERRA

ARGITALETXEA: EREIN



IBON ECANA



ETA emakumeari sugeak esan zion plazaratu eta hamalau urtera dator Lourdes Oñederraren bigarren eleberria, *Intemperies. Babes bila*. Ez da nekeza irudikatzen harrera beroa jaso eta aldi berean kanonaren inguruko eztabaida pizterainoko arrastoa utzi zuen opera primaren ostean bigarren lan bat argitaratzeak sor dezakeen bertio-goa. Ustekaberako tarte gutxi uzten duen eleberriarekin apurtu du Oñederrak isiltasun luzea, lehen eleberrian dagoeneko sendoa, pertsonala zen ahots narratiboa eta mundu-ikuskerare sendoago erakusten du bigarren honetan.

Luzia hizkuntzalaria da eta herentzia bat jaso ostean irakaskuntza utzi eta haur afasiko baten, Evaren, kasua aztertzen hasteak ematen dio parada Madrilén Victor neurologo alarguna ezagutzeko. Elkar ezagutzen dutenetik Victor Donostiara Gabon eguna pasatzera etorri artean igarotako urte eta erdia du kontagat nobelak. Denbora da narrazioa egituratzen duen elementua, eleberriar ordena eta batasuna ematen diona. Pertsonaiak dira, baina, egiazko protagonistak (tautologia zilegi bada): Luzia batez ere. Ez etxean ez Madrilén sesegurik aurkitzen

ez duena, bakarrik ezin, baina bikote harremanean ere nekez bizi daitekeen *flâneuse* garaikidea, hiriko jendetzan bakardadea bilatzen duena eta 50 urteen talaiatik denbora joanari eta etorkizunari larriduraz begiratzen diona.

"Arrazionaleria zera" esaten dio Victorrek Luziari nobelaren pasarte batean, eta "–egi" gorabehera, eguneroko keinu edo hitzen zergatia, arrazoiak, bilatzen duen ikuspuntu narratiboa da Oñederraren eleberririk honen alde erakargarrienetakoa. Harreman heterosexualean deskribapen eta behaketaz gain, gizon-emakumeen ekintza eta pentsamenduen zergatiaz galdetzen duena, bizitza arrunta ikerketa-gai duen ikuspegia. Arrazionalizazio-nahi horretan hizkuntzak duen rol ezinbestekoaz jakitun, hitzekiko arreta ia obsesiboa du Oñederraren prosak ezaugarri nahastezin. Hitzei begiratzera behartzen du irakurlea maiz, eten bat egin eta esandakoa errepikatuz, edo hitz bakarrari paragrafo osoa eskainiz.

Hizkuntzaren jakinminak darama, orobat, idazlea afasia kasu bat nobelan aztertzen. Alabaina, alderdi linguistikoz gain, gurasoak hil dizkion atentatu baten ondoren afasiko geratu-

tako Evaren kasua, bigarren planoan egon arren, presentzia ia fantasmatikoa bat da nobelaren, halako ezinegon eta tentsio bat eragiten dituen (interpretazio sozio-politikoez gain). Absentzia eta isiltasun pisua handia da eleberrian (Eva, Julia, Martin), eta horrek parada ematen dio egileari memoria eta ahanzturaz, gogoratu nahi eta ezinaz, ahaztu behar eta ezinaz edo heriotzaz gogoeta egiteko. Era berean, eleberririk osoa zeharkatzen duen beste gai obsesiboa bat plazaratzeko aitzakia ere bada Evarekiko Luziak duen harremana, hots, amatasunarena. Luzia pertsonaia bezala, amatasunaren gaia bere anbivalentzietan, kontraesanekin eta bere konplexutasunean irudikatzen da eleberrian, gauza asko esan gabe iradokitzen.

Nobelaren bertute nagusienak (hizkuntza, estiloa, ahots pertsonala, gai zenbaiten tratuera obsesiboa) uneka nobelaren heraren kontra bihurtzen direla irudituz zail irakurle honi (formari zein zehetasunean jarritako arreta batzuen gehiegizkoak azalean geratzea ekarriko balu bezala). Edonola ere, mundua ahots propioz izendatzeko gai den nobela interesgarria irudituz zail *Intemperies*.

Hitzei begiratzera behartzen du irakurlea maiz, eten bat egin eta esandakoa errepikatuz, edo hitz bakarrari paragrafo osoa eskainiz

SALDUENAK	Fikzioa		Ez Fikzioa	
	1. Musche Kirmen Uribe. Susa.	4. Bizkartzainaren lehentasunak Iñaki Irujozabal. Elkar.	1. Batzarra, gure gobernuak Pablo Sastre. Elkar.	4. ETA-ren estrategia artatuaren historia Emilio Lopez Adon. Maiatz.
2. Intemperies (babes bila) Lourdes Oñederra. Erein.	5. Inurrien histegia Mariasun Landa. Pamielo.	2. Errezildarren ateraidiak Emilia Izquierdo. Uztaria.	5. Udaberriz Xanti Zabala eta Nirkola Alda. Auspoc.	
3. Kristalezko begi bat Miren Agur Meabe. Susa.	6. Ez naiz ni Karmele Izo. Elkar.	3. Enbataren zirimolan Daniel Landart. Elkar.	6. New York-Martutene... Joseba Gabilondo Alberdi. EHU.	

LIBURU DENDAK: Elkar, Casa del Libro (Biba), Auzion (Ereina)

ERAKUSLEIHOA

ELEBERRIA

'Ispilu hautsia'

Mercé Rodoreda.
Anthon Okano
(itzul.). Erein.
356 orr. 17 euro.



Denboraren hala-beharrereko joanak

Mercé Rodoredaren eleberririk luzeena eta konplexuena, familia bateko hiru belaundiren historia da, Valldaura-Farriols familiaren sorrera, gortaldi eta gainbeherarena, hain zuzen, eta toki eta denbora jakin batean gertatzen da: Bartzelonan, XIX. mendean bukatutik Gerra Zibilaren ondorengo urteak arte. Toki nabarmena dute bertan Rodoredak bere obran zehar hamaika aldiz tratatu dituen gaiak eta kezak: haurtzaroko paradisu galdua, familia barruko giro itogarria, nahi gabeko amatasuna, bakardadea...

ANTZERRIA

'Tragedia emeak'

Karlos del Olmo.
Hiriko. 220 orr.
16 euro.



Emakumeen irimotasun bareaz

Tragedia emeak: emeak, emakumeak direlako protagonista nagusi. Emeak, tragediarik handienek ere emetasunerako tartea ere izan ohi dutelako. Emeak, jorratzen dituzten gaietako batzuk emakumeek pairatu behar izaten dituztelako, batez ere. Emeki datozten tragediek amaiera bortitza izan dezaketelako, eta bortitza hasitako eszenek akabera emeak. Pertsonaia emeen irimotasun barea eta pertsonaia arren-ahuldade artega emeki-emekei ehuntzen dituzte ale honetara bildutako bi antzezlanek.

HAUR LITERATURA

'Baserrian'


Susanna Davidson.
Iñaki Irujozabal.
(itzul.). Alessandra
Roberti (ilus.).
Tartatlo. 32 orr.
6,35 euro.



Irakurtzeko grina pizteko ipuinak

"Zatoz egun batez Alaia eta Markelekin baserria ikustera...". Gonbidapen honen bitartez, ipuin honek irakurtzeko testu errazak eta jolas egiteko denbora-pasak biltzen ditu. Tartatloren bilduma honen helburua irakurle hasiberriari irakurtzen ikasteko gogoia piztea eta laguntzea da. Ipuinak zailtasunaren arabera maila ezberdinetan sailkatuta daude (1etik 4ra). Liburu hauek istorio bikain eta testu errazak biltzeaz gain, marrazki ederrez hornituta daude.

ZALDI EROA



Urgull 2004 S.A.

Zuzendaria: Arantza Zugasti

Kordinazio lana: Amaia Santana

Ardura: Iñaki Mendizabal Elordi

Diseñua: Jesús Santamaría

Maketazioa: Naroa Etxebarria

Portadako argazkia: Xabi Otero

Lege Cordailua: BI 1720-06